

## **AKTA**

### **Udalaren Ohiko Osoko Bilkura**

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2015-10-22 (10)  
**ORDUA:** 19:00 – 20:00  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Juan Jose Txurruka Txurruka (EH BILDU)

**Zinegotziak:** Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)  
Isabel Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ/PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

#### **AZTERGAIK:**

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Kreditu aldaketak onartu eta kontu ematea.
- 3.- “Artibai erreka-aren gaineko bidea, oinezkoentzako hobekuntzak eta Markina-Xemeingo futbol zelaira iristeko zubia egiteko, eta BI-633rako sarbidea (49+170 kp) berrantolatze” lanen azken ziurtagiriak berrestea.
- 4.- Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren lizitazioa onartzea.
- 5.- Iderraga-Ituarte-ko ABC loteko A-2 eta C-1 lurzati- en xehetasun azterlana behin betiko onartzea.
- 6.- ELA sindikatuak proposatutako akordioa.
- 7.- Lurzoru urbanizaezinaren erabilera arautzen izan duen ordenantza indargabetzea.

- 8.- Udal diru-laguntzak arautzeko ordenantzari hasierako onespina ematea.
- 9.- 2016ko Euskal Herriko Itzuliko hitzarmena.
- 10.- Udalbiltzan sartzea.
- 11.- Mozioak:
  - 11.1.- *Gaixo dauden presoak.*
  - 11.2.- *Askapena.*
- 12.- Zinegotzien galderak.

1.- **AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Udalaren 2015eko uztailaren 2ko ohiko Osoko Bilkurako akta eta 22ko Osoko Bilkura berezikoa irakurri eta aho batez onartu dituzte.

2.- **KREDITU ALDAKETAK ONARTU ETA KONTU EMATEA.**

3105 – 2015/35 KODEA

Aurrekontuaren 9. eta 12. kreditu-aldaketen kontu eman da.

\* 9. aldaketa: urriaren 13ko alkate dekretuz onartu zen, Ogasun batzordeak bertan egunean aldeko irizpena eman eta gero. Honetantxe datza: diru-laguntzen 3380 43000 partidatik jaietako gastuen 3380 22699 partidara 12.300,00 euro aldatzea.

\* 12. aldaketa: urriaren 21eko alkate dekretuz onartu zen, Ogasun batzordeak urriaren 20ko bileran aldeko irizpena eman eta gero. Honetantxe datza: 3350 22799 partidatik 6.832,0 euro pasatzea honako partidatara: 2.832,00 euro 4420 62000 partidara, Azpiltzako autobus-geltokirako lurzati bat erosteko; eta 4.000,00 euro 3410 48100 partidara, kirola sustatzeko.

Ondoren, udaleko idazkari eta kontu-hartzaileak aurrekontuaren 10. eta 11. aldaketa proposamenak azaldu ditu. Aldaketa bi hauek osoko bilkurak onartu behar dituela argitu du, eta informazio batzordeak euron aldeko irizpena eman zuela pasa den urriaren 13ko bileran beren beregi egindako bileran.

\* 10. aldaketa, zertarako eta, diruzaintzako geldikin likidotik 17.273,17 euro hartu eta honako gastu partiden zerrenda finantzatzeko.

<b>GASTUA</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ZENBATEKOA EUROTAN</b>
1500601	Barroetako zubiko obra	14.863,17
1500601	Barroetako zubiko obra zuzendaritza	2.420,00
GUZTIRA		<b>17.273,17</b>
<b>SARRERA</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ZENBATEKOA EUROTAN</b>
87000	Diruzaintza geldikina	17.273,17
GUZTIRA		<b>17.273,17</b>

\* 11. aldaketa, zertarako eta, diruzaintzako geldikin likidotik 435.430,00 euro hartu eta honako gastu partiden zerrenda finantzatzeko:

<b>GASTUA</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ZENBATEKOA EUROTAN</b>
1500601	Erdotzako espaloia	153.000,00
1500601	Bekobenta aurreko espaloia	48.953,87
333221100	Xemeingo udaletxe (Arretxinaga) izandako eraikineko teilatua	113.156,78
160121200	Zelaiko komunak berriztatzea	10.075,00
1500601	Zelaiko goiko parteko bidea hobetzea	79.314,95
337362302	Atxondoa 3 aurreko umeen jolasgune berria	30.930,00
GUZTIRA		<b>435.430,00</b>

SARRERA	KONTZEPTUA	INPORTEA EUROTAN
87000	Diruzaintza geldikina	435.430,00
GUZTIRA		<b>435.430,00</b>

Aldaketa hauek onartzeko beharrezkoa da Osoko Bilkurara Udal idazkari eta kontu-hartzailearen txostena eramatea; bertan, Bizkaiko Toki-Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 6. artikularekin bat etorriz, aldaketa hauek entitate honen finantza-iraunkortasuna ez dutela konprometitzen adierazten duela..

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

1) Udal idazkari eta kontu-hartzaileak Udalaren finantza iraunkortasunaren eraginpeko 10. eta 11. kreditu-aldaketei buruz egindako txostena aintzat hartzea eta kreditu-aldaketa horiei hasierako onespena ematea.

2) 9. eta 12. kreditu aldaketen jakitun gelditzea.

3) Erabaki hau eta kontu-hartzailearen txostena Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunari bidaltzea, erakunde horrek egin behar duen txostenerako beharrezkoa duen bestelako dokumentazioa erantsita.

4) 10. eta 11. kreditu-aldaketei dagokienez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialera iragarki bat bidaliko da, onarpenaren berri ematen. Hamabost egun balioduneko epea zabalduko da, iragarki hau argitaratutakoan zenbatzen hasita, espedienteaz aztertu eta, hala badagokio, alegazioak aurkezteko berorren aurka. Epe hori amaitzen denerako alegaziorik aurkeztu ez bada, bigarren iragarki bat bidaliko da boletinerara, oraingoan aurrekontua kapituluka laburtuta, eta bigarren hau argitaratzen denean aldaketa behin betiko onartutzat emango da eta indarrean jarriko da, Udalak oraintxe bertan beren beregi horrela erabaki izanaren ondorioz.

**3.- “ARTIBAI ERREKAREN GAINEKO BIDEA, OINEZKOENTZAKO HOBEKUNTZAK ETA MARKINA-XEMEINGO FUTBOL ZELAIRA IRISTEKO ZUBIA EGITEKO, ETA BI-633RAKO SARBIDEA (49+170 KP) BERRANTOLATZEKO” LANEN AZKEN ZIURTAGIRIAK BERRESTEA**

4201 – 2013/135 KODEA

Barroetako zubiaren eraikuntza lanen azkeneko ziurtagirien zerrenda aurkeztu da. Hau da, teknikoki “ARTIBAI ERREKAREN GAINEKO BIDEA, HOBEKUNTZAK OINEZKOENTZAK ETA ZUBIA MARKINA-XEMEINGO FUTBOL ZELAIRA IRISTEKO, ETA BI-633RAKO SARBIDEA (49+170 KP) BERRANTOLATZEA” deituriko lanen ziurtagiriarena.

Lanak Udalbatzaren 2014ko martxoaren 20ko Osoko Bilkuraren erabakiz esleitu ziren. 2015eko lehenengo Osoko Bilkuran ordura arteko ziurtagirien kontu eman zen, eta ordutik hona beste ziurtagiri batzuk berretsi izan dira, zenbait osoko bilkuretan. Lanak amaitu dira, jada, obra behin betiko onartu da eta, horrenbestez, honako ziurtagiri hauen zerrenda aurkeztu zaio Udalari, berorrek berretsi ditzan:

**“ARTIBAI ERREKAREN GAINEKO BIDEA, OINEZKOENTZAKO HOBEKUNTZAK ETA MARKINA-XEMEINGO FUTBOL ZELAIRA IRISTEKO ZUBIA EGITEKO, ETA BI-633RAKO SARBIDEA (49+170 KP) BERRANTOLATZEKO” LANAK**

<b>UTE BARROETA (URRE,SA- EMETAL,SA)</b>
--

Lanen adjudikazioko aurrekontua	1.018.157,94 €
---------------------------------------	----------------

eguna	fra	testua	zenbatekoa	ordainketa eguna
08/05/2015	FV5	11. lan ziurtagiria, Artibai erreka- gaineko bidea, oinezkoentzako hobekuntzak eta Markina-Xemeingo futbol zelaira iristeko zubia egiteko, eta BI-633rako sarbidea (49+170 kp) berrantolatze" lanena.	47.549,42	16/06/2015
09/06/2015	FV6	12. lan ziurtagiria, Artibai erreka- gaineko bidea, oinezkoentzako hobekuntzak eta Markina-Xemeingo futbol zelaira iristeko zubia egiteko, eta BI-633rako sarbidea (49+170 kp) berrantolatze" lanena.	187.290,04	21/07/2015
17/08/2015	FV7	13. lan ziurtagiria, Artibai erreka- gaineko bidea, oinezkoentzako hobekuntzak eta Markina-Xemeingo futbol zelaira iristeko zubia egiteko, eta BI-633rako sarbidea (49+170 kp) berrantolatze" lanena.	56.393,18	19/10/2015

**“ARTIBAI ERREKAREN GAINEKO BIDEA, HOBEKUNTZAK OINEZKOENTZAT ETA ZUBIA MARKINA-XEMEINGO FUTBOL ZELAIRA IRISTEKO, ETA BI-633RAKO SARBIDEA (49+170 KP) BERRANTOLATZEA" LANETAKO SEGURTASUNA, OSASUNA ETA INGURUMENAREN ZAINZTA KOORDINATZEKO LANEN ZUZENDARITZA**

**INJELAN,  
SL**

Adjudikazioko  
aurrekontua 53.603,00 €

eguna	fra	testua	zenbatekoa	ordainketa eguna
20/07/2015	44/15	Segurtasun eta osasunaren eta ingurumenaren zaintzaren koordinazio lanen zuzendaritza – 4. faktura	13.215,74	02/09/2015
21/09/2015	50	Segurtasun eta osasunaren eta ingurumenaren zaintzaren koordinazio lanen zuzendaritza – 5. eta azken faktura, eta lanak onartzea	2.853,93	

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udaltzako hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Aurkeztutako zerrendako ziurtagiriak berrestea.
- 2) Erabakia Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari jakinaraztea, adierazitako lanok arautzen dituen hitzarmenean xedatutakoa betetzeko.
- 3) Erabakia Ekonomia arloari aditzera ematea.
- 4) Erabakia lanen enpresa adjudikaziodunari jakinaraztea.

**4.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN LIZITAZIOA ONARTZEA.**

2605 – 2015/155 KODEA

Udalaren oniritzira jarri da udal eraikinen garbiketa zerbitzua lizitaziora ateratzeko proposamena.

Lizitazioa arautuko duten baldintzen orria aurkeztu zaio dagokion informazio batzordeari eta honek aldeko irizpena eman du.

Azaldutako guztia ikusita eta espedientea aztertu eta gero, Udaltzak hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Udal eraikinen garbiketa zerbitzua lizitaziora ateratzea aurkeztutako baldintzen orriarekin bat etorritik, eta baldintzen orria bera ere onartzea.
- 2) Eskaintzak aurkezteko epea zabaltzea, baldintzen orrian jasotakoarekin bat etorritik.
- 3) Ekonomia arloari erabaki honen berri ematea.

**5.- IDERRAGA-ITUARTEKO ABC LOTEKO A-2 ETA C-1 LURZATIEN XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

4109 – 2015/121 KODEA

2015eko maiatzaren 29an, Javier Arrieta Barinagarrementeria jaunak Iderraga-Ituarte ABC loteko A-2 eta C-1 lurzatiaren xehetasun azterlanaren proiektua aurkeztu zuen Arrieta 2000 S.L.-ren izenean, eta 2015eko uztailaren 24ko ebazpenaren bidez, Alkateak hasierako onespena eman zion.

Espedientea jendaurrean egon da hogei egunez eta bitartean ez da alegaziorik aurkeztu.

Hirigintzako udal informazio batzordeak espedientearen aldeko irizpena eman du eta, horrenbestez, Udalaren oniritzira jarri da.

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udaltzak hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Xehetasun azterlana behin betiko onartzea.
- 2) Erabaki honen iragarkia bidaltzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialera eta, halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko egunkari batean ere iragarki bat argitaratzea.
- 3) Erabakia Javier Arrieta Barinagarrementeria jaunari jakinaraztea, Arrieta 2000, SLren izenean eta ordeztuz.

**6.- ELA SINDIKATUAK PROPOSATUTAKO AKORDIOA.**

2315 – 2015/1 KODEA

Joan den urrian, udaleko beharginen ordezkariak eta ELA sindikatuaren eskualdeko ordezkariak bilera bat egin zuten udal ordezkariekin.

Besteak beste, hauexek gaiak tratatu zituzten: 2015eko produktibitate osagarria, 2012ko paga itzultzea estatu mailako irizpideak oinarri hartuta, lan eskaintza publikoak egiteko aukeraren gaineko legezko egoera...

Tokiko Gobernu-Batzarrak, udal talde politiko bietako ordezkariak osatuta dagoenak, egindako azkeneko bileran tratatu zuen gaia eta, sindikatuarekin tratatutako gaien gaineko erabakia hartzea Udaltzari dagokiolarik, osoko bilkura honetan erabakitzea proposatu zuen.

Horiek horrela, Udalak haxe erabaki du aho batez, azaldutako guztia aztertu eta gero eta indarreko araudian xedatutako jarraibideak kontuan dituela:

1) Sindikatuak proposatutako produktibitate osagarria kalkulatu eta abenduko nominarekin batera ordaintzea. Halaber, 2012ko paga 2016eko lehen hiruhilekoan kitatzea. Aparteko pagak berriro ekainean eta abenduan ordaintzea. Eta 2016eko aurrekontuetan jasota uztea sindikatuak eta Eudelek urtea amaitu bitartean adostu ditzaketen akordioen ondoriozko soldata igoera.

2) Lanpostuen zerrendaren aldaketa aztertzeko, sindikatuarekin berba egindakoa oinarri hartuz eta azaroan egiteko den hurrengo bileran adosten dutenaren arabera.

#### **7.- LURZORU URBANIZAEZINAREN ERABILERA ARAUTZEN IZAN DUEN ORDENANTZA INDARGABETZEA.**

3226 – 2015/39 KODEA

Hirigintzako udal informazio batzordeak espedientea aztertu duelarik, Udalaren osoko bilkuraren iritzira jarri da Markina-Xemeingo lurzoru urbanizaezinaren erabilera arautzen izan duen ordenantza indargabetzeko erabakia.

Ordenantza indargabetzeko arrazoiak honako motibo honetan dute jatorria: udal ordenantza indarrean sartu eta geroago, Bizkaiko Foru Aldundiak Agindu bat onartu zuen lurzoru urbanizaezinetako bizitegi-erabilera arautzeko behar ziren mekanismoak biltzen zituen.

Kontua da foru araudia tokikoa baino bigunagoa zela eta, horregatik, udalarena indargabetzeko posibilitatea planteatu zen. Izan ere, eta denborarekin ikusi ahal izan denez, udalarenak ondoren eta eragin gehiegizkoak zituen.

Adibide simple bat jartzearen, tokiko araudiak haxe zioen jarduera bati atxikita egoteari uzten zioten bizitegi-erakinen kasuan: "...Udalak bere zerbitzu guztiak kenduko dizkio (bertan bizi direnei) eta bitarteko egingo du dagokien erakundeekin urez eta argiz ez ditzaten hornitu...". Holakoetarako, Aldundiak *antolamenduz kanpoko* deritzon egoera juridikoa aurreikusten du, bere esentzia galdu egiten duena hogeita bost urte pasatakoan eraikuntza justifikatzeko balio izan zuen jarduerarik gabe.

Foru Aldundiaren irtenbidea ere ezin esan perfektua denik. Argi eta garbi ikusten da motibo bat baino gehiago egon daitekeela jarduera bat desagertzeko, titularren borondateaz bestelakoak. Hala nola, titular horien jubilazioa, heriotza, jarduteko ezintasuna... eraikina ezinbestez antolamenduz kanpoko egoeran utziko luketenak. Honek, berez, ez du zentzurik, baina are gutxiago holako kasuetan Udalak bertan bizi direnei zerbitzu guztiak kentzeak.

Horiek horrela, eta azaldutako guztia aztertu eta gero, Udaltzariak haxe erabaki du aho batez:

1) Puntu honetan aztertutako ordenantza indargabetzea.

2) Erabaki honi buruzko iragarki bat argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren web atarian.

#### **8.- UDAL DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA.**

3226 – 2015/39 KODEA

Urte batzuk badira Markina-Xemeingo Udalak udal diru-laguntzak arautzeko ordenantza onartu zuela eta ordenantza berri bat onartu premia ikusi da, indarreko araudiarekin bat etorri beharko duena.

Osoko bilkurako gaiak aztertzeko informazio batzordeari azaldu zaio gaia eta, horrek, osoko bilkura honetara ekarri den testua onartzearen aldeko irizpena eman du.

Hori horrela, eta azaldutako guztia aztertu eta gero, Udaltzako haxe erabaki du aho batez:

1) Udal diru-laguntzak eskatu eta emateko modua arautuko duen ordenantzari hasierako onespena ematea.

2) Erabakiari buruzko iragarkia bidaltzea BAOran hilabeteko epea ematen, iragarki hau aldizkarian argitaratu eta bihamunetik aurrera zenbatuta, nahi duenak espedientea aztertzeko eta alegazioak edo iradokizunak aurkezteko udaletxean. Epea amaitzen denerako alegaziorik aurkeztu ez bada, hasierako onespena behin betikotzat emango da eta bigarren iragarki bat bidaliko da aldizkarira hala aditzera ematen. Behin betiko onspenaren iragarkia argitaratutakoan, hamabost egunera jarriko da ordenantza indarrean.

**9.- 2016KO EUSKAL HERRIKO ITZULIKO HITZARMENA.**

5302 – 2015/45 KODEA

2016ko Euskal Herriko Itzulia antolatzeke OCETArekin sinatu beharreko hitzarmena aurkeztu zaio Udalari.

Hitzarmena irakurri da eta bere nondik norakoak azaldu dira gain-gainetik. Laburbiltzearen, esan behar da Udalak sinatuko duena babesletza hitzarmen bat izango dela. Hain zuzen ere, Markina-Xemeingo eta Etxebarriko udalek antolatzaileei bien artean 70.000 euro ordaintzeko konpromisoa hartu dute. Alabaina, udalek euron aldetik egin ahal dutena da enpresei publizitatea saldu, euren poltsikotik hori diru denori ez ipini behar izateko. Edo, bestela ere, publizitate hori enpresei saltzea lortu ezean, udalek gainerako dirua bakarrik ordaindu beharko lukete.

Enpresek ordaindutako dirua zuzenean antolatzaileei emango zaie eta, horrela, enpresek horren ehuneko bat desgrabatu ahalko dute. Euron kontabilitatearen ikuspuntutik, udalek partida bat gorde beharko dute diru-laguntzen kapituluan, zenbateko osora arte gehitu ahalko dena. Alegia, 35.000,00 euro arte, okerreanean ere.

Udalak diru bat ordaindu beharko balu, hau da, antolatzaileekin hitzartutako zenbateko osotik enpresek ordaintzeko zenarekin kitatu ezin izan dena, diru horrekin ordaindu dituen gastuak zuzitzeko eskatu beharko dio OCETARI. Legez, kontu denak zuzitu beharko lituzkete OCETAK, baina udalarentzat nahikoa izango da berak emandako diru kopurua zuzitzen badu. Izan ere, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia ere bat dator iritzi honekin, izango dira beste erakunde batzuk lasterketa antolatzeke diru-laguntza handiagoa emango dutenak, eta gastu denak fiskalizatuko dutenak.

Amaitzeko argitu egin behar, udalek, diru-laguntza lez ordaindu behar izan dezaketena gorabehera, obra batzuk egiteko konpromisoa ere hartzen dutela hitzarmena sinatuta. Hala nola, pasabide goratuak egokitzea, laguntzaileak, azpiegiturak... egitea ere euren gain hartzen dutelako. Horien kostua, berriz, zuzenean ordainduko dira gastu orokorren kapituluaren kargura.

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udaltzako haxe erabaki du aho batez



- 1) Aurkeztutako hitzarmena onartzea.
- 2) Erabakia aditzera ematea Ekonomia arloari.
- 3) Erabakia OCETAko ordezkariari jakinaraztea.

#### 10.- **UDALBILTZAN SARTZEA.**

1402 – 2015/160

Joseba Iraolagoitia Martinez zinegotziak honako testua aurkeztu du:

#### **“UDALBILTZA ZER DA:**

Udalbiltza, Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzarra da.

#### **HELBURUAK:**

Udalbiltza Partzuergoaren helburuak: elkartutako erakundeen osoko garapena eta beren arteko elkarlan instituzionala bultzatzea, elkarrekin batera lan eginez beren lurralde-eremuko lurralde, gizarte eta kultur antolamendua lortzeko. Eta jomuga horretara iristeko tresna bezala, honako puntu hauetan laburbil daitezkeen garapen estrategiak landu eta baliatuko ditu:

a) Eskualdearen garapen ekonomiko eta soziala lortzeko beharko diren ekintzak planifikatu eta betetzea.

b) Elkartutako erakundeen ekimenak kanalizatu eta bultzatzea.

c) Jarduera ekonomikoa erraztuko duen gizarte eta zerbitzu ingurune baten izantza bultzatzea, garapen jasangarria delakoaren parametroen barnean, zeren eta kolektibitatearen aldetik garapen jasangarriaren aldeko jarrerak eta zerbitzuen sektorearen prestaketa egoki eta modernizatu batek bakarrik segurtatzen baitute hazkundera lortzeko marko egokia.

d) Ekonomia, gizarte eta kultur eragile guztien parte-hartze lortzea gaur egungo arazoan konponbide bateratuko prozesuan, agente horiek Euskal Herriaren etorkizunari buruzko gogoeta eta diseinua egiteko prozesuan konprometiaraziz.

e) Ekimen publiko eta pribatuekin elkarlanean jardutea, elkartutako erakundeen edo hauekin batera jardun dezaketenen lurraldean egiten diren jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko.

f) Partzuergoaren funtzionamendurako eta bertatik sustatuko diren jardueretarako beharko diren finantzaketa kudeatzea.

g) Euskal Herriko gizarte bere garapen interesei lagun diezaioketen arazo, baliabide, ekintza eta proiektuei buruz sentsibilizatzea.

h) Kudeatzen diren jarduerekin loturarik izan dezaketen edo kontsekuenteak izan daitezkeen jarduera guztiak egitea.

Udalbiltza Partzuergoaren barnean, bere parte egiten duten toki-erakundeek izan ditzaketen jarduera, ekimen eta, oro har, jarduketa guztiak koordinatzera bideratutako ekintzak sartzen dira, honako gai hauekin erlazionatutako hainbat proiektu garatzeko udalen arteko elkarlanaren testuinguruan:

a) Sustapen politikak.

b) Administrazioaren batek toki-erakundeen edo erakunde elkartuen alde emandako diru-laguntzak banatu eta kudeatzea, edota berdin hauek Partzuergoaren helburuekin lotutako eskumenak betetzerakoan beste administrazioen alde eman ditzaketenak ere.

c) Erakunde elkartuen eskumeneko lanak eta zerbitzuak exekutatzea. Helburu honen barnean, toki-erakundeen eskumenekoak diren zerbitzu-multzo handia sar daiteke.

d) Iritsitako eskumenak garatzeko beharrezkoak diren egoitza, lokal edo eraikinak partekatzea.

e) Ondare-ondasunak lagatzea eta erabilera-lagapena onartzea, toki erakundeek egindako jardueretara destinatzeako, Partzuergoko helburua betetzearren.

f) Herritarren komunitate bakoitzaren beharrian eta nahiak asetzen lagun dezaketen jarduerak garatzea eta zerbitzu publikoak egitea.

Ikusirik Euskal Herriko udalerrien arteko harremanak sendotu eta interes komunak elkar bultzatzeko “Udalbiltza Partzuergoa” izenez eraturiko entitate publikoari buruzko espedientea.

Iraolagoitia jaunak Udalbiltzaren helburuekin bat egitea proposatu du eta, horrenbestez, Markina-Xemeingo Udala erakunde partzuergoan sartzea.

Proposamena bozkatu egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: 6 (EH BILDUko zinegotzienak).

Aurkako botoak: 0 (EAJ/PNVko zinegotzienak).

Abstentzioak: 5 (EAJ/PNVko zinegotzienak).

Hori horrela, Udalbatzarreko gehiengo osoa osatzen duten zinegotziek honakoa erabaki dute:

1) Markina-Xemeingo Udala “Udalbiltza Partzuergoarekin” eta bere estatutuekin bat dator eta bertan sartzeko eskaera egiten dio Partzuergo horren Kontseilu Nagusiari”.

Partzuergoaren eraketa akta zein estatutuak erabaki honi eransten zaizkio.

2) 6.000,00 euroko urteko kuota ordaintzea.

## 11.- **MOZIOAK**.

### 11.1.- *Gaixo dauden preso.*

1205 – 2015/32 KODEA

Gaixo dauden presoek buruzko honako mozioa irakurri da:

*“Egun badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera honek, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzen du. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatzen ditu.*

*Gaixo diren preso hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini*

*tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik.*

*Eusko Legebiltzarrak berak ere, berauen askatasuna behin baino gehiagotan eskatu du. Etxeratze hori ematen ez den bitartean, Euskal Herriko kartzelaren batean mantendu beharko litzateke.*

*Ikusirik, Ibon Iparragirre euskal preso, bestelako auzibideengatik Euskal Herrira ekarri dutela. Aukera paregabea izango litzateke, bertan gelditzea. Horrela bere gaixotasunak behar bezalako arreta izango duelako.*

*Hau guztia kontuan harturik, Markina-Xemeingo udalak honako hau adierazten du:*

*1) Udal honek bere kezka adierazi nahi du Ibon Iparragirre euskal preso gaixoak pairatzen duen egoera larriaren aurrean.*

*2) Udal honek Ibon Iparragirre euskal preso berriro ez sakabanatzea eskatzen du.*

*3) Udal honek, Ibon Iparragirre preso Osakidetzan edo bere gertuko ta konfiantzazko mediku batek bere osasun egoera hartu dezala eskatzen du.*

*4) Udal honek, guzti hau exijitzeko, dei egiten du, datorren larunbatean, eguerdiko 12etan "etxean nahi dugu" lemapean egingo den kontzentrazio ixilera"*

Udalbatzak aho batez onartu du mozioa.

11.1.- Askapena mozioa.

1205 – 2015/32 KODEA

Mozio hau mahai gainean utzi da, eta udal talde politiko biak datorren astean biltzekotan gelditu dira adierazpen instituzional bakarra adosten saiatzeko,

12.- **ZINEGOTZIEN GALDERAK.**

12.1.- Luis Mari Malaxetxebarria Elordi zinegotziaren galdera.

Pasabide goratuei buruz galdetu du ez ote den posible izango, Euskal Herriko Itzuliko etapa bat berton jokatu dela eta pasabidek egokitu beharko direla aprobeztatuz, hain irtenak utzi ez eta abisu argi batzuk jartzea, arazoak eta istripuak saihesteko. Alkateak erantzun dio gaia Hirigintzako hurrengo bileran tratatu daitekeela.

12.2.- Andoni Malaxetxebarria Kalzakorta zinegotziaren galdera.

Udako udalekuen antolaketa dela eta, zerbitzua bat bada halaxe lizitatu dadila eskatu du, eta ez hiru fakturatan zatituta aurten egin den moduan. Josune Baskaran Etxeberriak erantzun dio egin den moduan egin bada umeen gurasoek begiraleak betikoak izatea nahi zutelako izan dela, baina datorren urtean zerbitzua osorik lizitatu nahi dela.

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 20:00ETAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio